



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Dimako Udala

20/2021 legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri espezifikoak, Dimako udaleko lan-kontratudun langile finkoentzako peoiaren lanpostu bi, txanda irekian, administrazio bereziko eskalako, zerbitzu berezietako azpieskalako eta ap taldekoak.



Dimako Udala

20/2021 legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri espezifikoak eredu, Dimako udaleko lan-kontratudun langile finkoentzako peoiaren lanpostu bi, txanda irekian, administrazio bereziko eskalako, zerbitzu berezietako azpieskalako eta ap taldekoak

1. – Deitutako plazak.

2022. urterako enplegu publikoko eskaintzan argitaratutako lan-kontratudun langile finkoentzako lanpostu bi, Administrazio Bereziko Eskalako, Zerbitzu Berezietako Azpieskalako eta AP taldekoak direnak, eskuratzeko eta txanda irekian deialdia egiten da 20/2021 legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziari lotuta, eta honela banatuta:

- Plaza kopurua: 2
- Lotutako lanpostuak: Peoia, Administrazio Bereziko Eskalako, Zerbitzu Berezietako Azpieskalako eta AP taldekoak.
- Hizkuntza-eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabekoa.
- UDALHITZen lan hitzarmenaren arabera: 25.642,68 € urtean: oinarritzko soldata, aparteko pagak eta ordainsari eta osakin osagarri guztiak barne.

Langile horien zereginak udaleko ofizialaren esanetara burutuko dira, honako honeik, besteak beste, izan litezkeela:

- eraikuntza-adreilu erabiliak garbitu eta eraipen guneeetan lan arinak egitea.
- hormigoia, igeltsua eta morteroa bezalako materialak nahastu, bota eta zabaldu.
- zuloak eta lubakiak zultatu eta bete eskuko tresnak erabiliz, baita lurra trinkotu eta berdindu ere.
- zabaldu zikinkeria, harea, legarra eta antzeko beste material batzuk.
- eraikuntza-, indusketa- eta ekipamendu-materialak kargatu eta deskargatu eta obra-lanetan zehar garraiatu karretak eta esku-bagoiak erabiliz.
- lantokiak garbitu eta oztupoak kendu.
- hondakinak eta bestelako materialak garbitzea lan-eremuak garbitzeko. lan hauek egiteko oso ohikoa da orga jasotzaileak erabiltzea.
- makineria konfiguratu eta martxan jarri eta besteei laguntzea ekipoen ohiko mantentze eta konponketetan.
- beharrezko ibilgailuak gidatzea lan batean, hala nola kamioiak, orga jasotzaileak, etab.
- aldi baterako egiturak muntatzea, hala nola aldarmioak, trafiko-hesiak, zubiak.



- lotura, lerrokadura edo egitura-osagaien zigilatzeak lan osagarriak, hodiak edo hormigoizko hormak, esaterako.
- besteei laguntzea egitura-osagaiak kokatzen, lotzen, lerrokatzen edo zigilatzen, hala nola hormigoizko horma-atalak eta hoditeria.
- hormigoia botatzeko moldeak egin, jarri eta desmuntatu.
- nahasgailuak, konpresoreak eta ponpak bezalako ekipak zaindu.
- zuhaitzak edo zuhaixkak moztu

2.– Parte hartzeak eskakizunak.

2.1.– Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2.– Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez, eskola-ziurtagiriaren titulazioa eskatzen da.

3.– Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1.– Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 1. hizkuntza eskakizunak ez du derrigortasun datarik igarota. Beraz, bere ezagutza ez da betekizuna izango eta bakarrik baloratuko da lehiaketaren fasean.

3.2.– Era berean, deialdi honen muina diren plazei lotutako lanpostuek berariazko honako betekizun hau dute esleituta:

- Gidatzeko karneta B tipokoa.

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean proba teoriko bat eta lau proba praktikoa egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira: 10 puntu gehienez lehenengo proban eta 50 puntu gehienez proba praktikokoetan. Kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

**Dimako Udala****4.1.1.– Lehen proba:**

Teorikoa izango da eta galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

4.1.2 Bigarren proba

Oinarri espezifiko hauen II. eranskinean jasotako lau proba praktikoak egitean izango da.

Epaimahaiak, probak egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, emaitzak argitaratuko ditu Dimako Udalaren iragarki-taulan eta webgunean.

Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denez, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu behar. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Dimako Udalari erregistro horretan egiaztatzea.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Hautaketa prozesu honetarako hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.



Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsua jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira Dimako Udalaren iragarki-taulan eta webgunean.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

A) Esperientzia: 30 puntu gehienez

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

Gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- AP Taldearen peoiaren lanpostuan edo altuagoetan, Administrazio Orokorreko Klasean eta Zerbitzu Bereziako Kategorian edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, egindako zerbitzuengatik 0,004566 puntu lan egindako egun bakoitzeko.



DIMA

**Dimako Udala**

a.2. Berariazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:

- AP Taldearen peoiaren lanpostuan, Administrazio Orokorreko Klasean eta Zerbitzu Bereziako Kategorian administrazio deitzailean egindako zerbitzuengatik, 0,009133 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.- Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila bat handiagoko titulu bat izateagatik: 3 puntu

b.2.- Gidabaimen hauetakoren bat edukitzeagatik, gehienez 3 puntu:

- B+E motako gidabaimena: 1 puntu
- C motako gidabaimena: 2 puntu
- C+E motako gidabaimena: 3 puntu

b.3.- Euskara ezagutzak.

Baloratuko da euskararen ezagutza, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 1 puntu
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 2 puntu
- 3. hizkuntza-eskakizuna: 3 puntu
- 4. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gaingitu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da Administrazio Bereziko Eskalako, Zerbitzu Berezietako Azpieskalako eta AP taldeko peoien postuetan emakumeen azpiordezkaritzarik dagoelako

Diman, 2022ko abenduaren 22an

Alkatea Izpt.-Josu Gorospe Lapatza


(BIZKAIA)



DIMA

**Dimako Udala****I. ERANSKINA. GAITEGIA**

1. Laneko arriskuen pre ben tzioa: segurtasun bal din tza orokorrak: — Laneko ekipotan eta eskuko erremintetan. — Lantokietan. — Materialen zama eta garraio lanetan.
2. Laneko arriskuen pre ben tzioa: norbera babesteko ekipoak. Segurtasuneko seinaleak.
3. Laneko arriskuen pre ben tzioa: lehen sorospenak.
4. Laneko arriskuen pre ben tzioa: Leku itxietako lanak. Amian - to arris kua: kentzea zuntz-zementuzko hodiak.

II. ERANSKINA

- a) Puzgailuarekin proba bat burutzea puntu batetik beste puntu batera zerrauts-ontzi baten edukia, baremo hauen arabera:

— Baremoa (minututan):

Denbora	Eraitza
4' tik gora	0
3' tik 4'ra	5
3' tik behera	10

— Baremo (NBE: Norbera babesteko ekipamendua):

Zeregin honetan derrigorrezko NBEko elementuak ez izateak elementu bakoitzeko puntu bat murriztea ekarriko du gehienez hiru puntu negatibo arte.

- b) Desbrozadoraren filtroa garbitu, aldatu eta bujiaren aldaketa egitea, baremo hauen arabera:

— Baremoa (minututan):

Denbora	Eraitza
5' tik gora	0
4'tik 5'ra	5
3' tik 4'ra	7
3' tik behera	10

— Baremo (NBE: Norbera babesteko ekipamendua):



Zeregin honetan derrigorrezko NBEko elementuak ez izateak elementu bakoitzeko puntu bat murriztea ekarriko du gehienez hiru puntu negatibo arte.

c) 750 kg baino gutxiagoko atoaia lotu land roverari eta jarraian udal brigadaren lokaletan atzerantza sartzeko maniobra land rover, atoiarekin lotuta, gidatuz, baremo hauen arabera:

— Baremoa (minututan):

Denbora	Eraitza
5' tik gora	0
4'tik 5'ra	5
3' tik 4'ra	10
3' tik behera	15

— Baremo (NBE: Norbera babesteko ekipamendua):

Zeregin honetan derrigorrezko NBEko elementuak ez izateak elementu bakoitzeko puntu bat murriztea ekarriko du gehienez hiru puntu negatibo arte.

d) Erresistentzia hesiekin frogatzea: Hautagaia hesien ondoan jarriko da, bertan bost hesi egongo direlarik. Banan bana hesiak eraman beharko ditu 40 metrotara dagoen murraraino, guztira 5 hesi eta 200 metrotako luzera ibilbidea egin beharko du. Froga amaituko da hasera puntura itzultzerakoan, baremo hauen arabera:

— Baremoa (minututan):

Gizonezkoak	Eraitza	Emakumezkoak
3'20"	15	3'40"
3'30"	10	3'50"
3'40"	9	4'00"
3'50"	6	4'10"
4'00"	3	4'20"

— Baremo (NBE: Norbera babesteko ekipamendua):

Zeregin honetan derrigorrezko NBEko elementu bakoitza ez izateak elementu bakoitzeko puntu bat murriztea ekarriko du gehienez hiru puntu negatibo arte.

Oharra: a)+b)+c)+d) proben emaitzen batuketak eta puntu negatiboak kentzeak, hala badagokio, 50 puntu ekarriko ditu gehienez.